



**2018KO AZAROAREN 23KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2018ko azaroaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 104 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, **BERROGEITA HAMABI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (52.777,95 €)**takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- SAN INAZIO ATZEKALDEAREN BERRURBANIZAZIO LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-**

San Inazio atzekaldeko berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen lehen obra egiaztatzea egin dute. Obra egiaztatzearen zenbatekoa, **BEZ barne, HAMAR MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (10.346,71 €)** da. Lanak burutzen ari den enpresa Construcciones Etxaide S.A. da.

Udal arkitekto teknikoak bere oniritzia eman dio obra egiaztatzeari honi.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, San Inazio atzekaldeko berrurbanizazio lanen lehen obra egiaztatzeari hau onartzea erabakitzen du.

**IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 17-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2018-10-08tik, egoitzan sartu delako.



- 17-11-02 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2018-10-31tik, alabarekin bizitzera joan delako beste herri batera.
- 18-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta 2018-11-05etik, astelehenetik larunbatera egunero 1,5 ordu, garbitasun pertsonala egiteko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.
- 14-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzua, denboraldi baterako, luzatzea, izan duen erorketaren ondorioz errekuperatu bitartean, astean 10 ordutik 15 ordura. Eguerdian ordu bete jarriko zaio bazkaria emateko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.
- 247 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, astean 6 ordutik 18 ordura, 2018-11-02tik, bere osasun egoerak okerrera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.
- 17-11-05 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2018-11-08an, heriotzagatik.

#### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 18-01-14 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € eta alokairu gastuetarako hilean 245 € ematea, biak urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

#### Esku-hartze familiarra.-

- 16-15-01 zbk.dun esped.: esku-hartze familiarra 2018-10-31n amaitzea, adin txikikoaren egoera hobetu delako.

#### Lazkaoko talde feministari diru laguntza.-

Lazkaoko talde feministari 1.000 €ko diru laguntza ematea, urteko ekintzen garapenerako.

#### N'Daliko (Benin) San Padre Pio ospitalari diru laguntza.-

Beninen, N'Daliko San Padre Pio ospitaleko osasun eragileei formakuntza emateko 9.460 € ko diru laguntza ematea.

#### V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura batzordetik kultura taldeei diru laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako diru laguntza hauek ematea erabaki du:

	Taldea	Diru laguntza	
	Oin Arin dantza taldea	12.602,28	
	Kantaka abesbatza	2.092,31	
	Antzar Gazteak txistulariak	2.305,41	



Jundajo txaranga	3.000,00
Guztira .....	20.000,00

VI.- EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Euskara arloko zinegotziak, 2017-2018 ikasturtean euskarako eskoletan ibili diren ikasleei diru laguntza emateko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bere espedientearen zerrendatzen diren 13 laguni, bakoitzari zerrenda horretan zehazten den kopurua, guztira 6.983 €ko diru laguntza ematea erabakitzen du.

VII.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

EUDELetik iritsi den adierazpen instituzionalak honela dio:

**AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA  
"EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"**

***Begirada berria emakumeen aurkako indarkeriari***

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagola loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: **Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.**

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitze-ko dugun konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da **erreparazio-eskubidea** emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da **ahotsa eta protagonismoa ematea**, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera.

Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak **sistematikoki aztertuz.**

Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:

- Gure konpromisoa **agenda politikoan** indarkeriak eragindako emakume biktimekiko **erreparazio-eskubidearen** aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.
- Gure konpromisoa **udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko** edo, hala badagokio, **abian jartzeko**, indarkeria matxistari aurre



egitea xede, **emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin** batera, bai halaber **gizarte zibilarekin eta herritarrekin** oro har.

- Gure konpromisoa **gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko**, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezten.
- Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, **beharrezkoak diren baliabideak** eskura izan daitezten, xedea izanik emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea.

Eta honez gain, udala osatzen duten bi taldeek adostutako beste hau gehitzen zaio:

Era berean, Lazkaoko Udalak orain arte hartutako konpromisoak berretsi eta:

- izendatzeko modua orekatzeko xedez, aurrerantzean "indarkeria matxista" adiera erabiliko dugu, adituek hori erabiltzen duten moduan.
- 2019ko aurrekontuak definitzeko unean, berdintasun-unitateei baliabide tekniko eta ekonomiko gehiago emango ditugu, egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartuz.
- legealdi honetan Berdintasun plana garatzen segitzeko herriko eragileekin elkarlana sakonduko dugu.
- bat egiten dugu azaroaren 25erako prestatutako ekintzekin eta herritarrei ere dei egiten diegu parte har dezaten.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du ez lukeela eztabaidarako gai izatea nahi baina esan nahiko lukeela, aurreko puntuan bezala, udalera zerbait adostuta etortzen denean, ez dela egokia adostutako horri gauzak aldatu edo gehitzea, adosten ibili direnekiko gutxiespen bezala uler daitekeelako.

Zufiria andereak (EH Bildu) esaten du berak ez duela hartzen eta ez duela uste horrela hartzekoa denik.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak lau gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

